



## **PRESTAKUNTZA IKASTAROAK BURUTZEN ARI DIREN OREDAINGO BIZTANLEEI LAGUNTZAK EMATEKO ERREGELAMENDUA.**

### **1. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. artikulua: Xedea.**

Orendaingo herritarrek prestakuntza osagarria eta bestelako jarduera eta ekintzak egiten direnean onartuko diren laguntzen erregelamendua arautzea du. Xede honen barruna bi bereizketa hauek egiten dira:

- a.- Orendaingo herritarren herriz kanpoko prestakuntza osagarria den kasua.
- b.- Orendaingo herritarrek, herrian bertan, ikastaroak jasotzen dituenak.

#### **2. Orendaingo herritarren herriz kanpoko prestakuntza osagarria den kasua.**

**Definizioa:** Orendaingo herritarrek, beren ikasketak osatzeko egiten diren ikastaroak kontsideratzen dira prestakuntza osagarriak.

Ezaugarriak:

- .- Eskola orduz kanpo egiten direnak.
- .- Laneko orduz kanpo egiten direnak.
- .- Herrian eskeintzen ez direnak.

**Onuradunak:** Prestaketa osagarriaren onuradunak, herritarrek dira, ikasleak direnak, hau da ikasturte horretan, ikastetxe zentru batetan matrikulatuak daudenak; edo ohiki ikasleak ez direnak.

**Modalitateak:** Onuradun guztientzako, prestakuntza ikastarotzak hauek hartzen dira:

Hizkuntza arlokoak: euskera, alemana, frantsesa e.a.

Musika arlokoak: tailerrak, solfeoa, instrumentoa e.a.

Antzerkigintza.

Dantza: modalitate guztiak.

Bertsolaritza.

Informatika.

Arte plastikoak: margoketa, marrazketa, dineinua ...

Eskolako lanetarako laguntza, (hau ikasleak direnentzako bakarrik izango da)

Mota desberdinetako kirola.

#### **Laguntzaren helburu nagusiak:**

- 1.1 Orendaingo herritarrek prestakuntza honekin, beraienezako onura partikularra izatea.
- 1.2 Prestaketa osagarria egiteko aurkitzen diuen oztopo garraioa norberak egin beharra xamurtzea.
- 1.3 Herrian aukerarik ez izatea edo herrian eskaini ezin izanaren ondorioz, askotan matrikula, tasa edo prezio publikoetan ordainketa garestiagoekin aurkitzen direnez, egoera piska bat xamurtzea.



### **3.- Orendaingo herritarrek, herrian bertan, ikastaroak jasotzen dituen**

**Definizioa:** Orendaingo herritarrek, Orendain udalerrian bertan, burutzen dituzten ikastaroak, aisialdirako edo antzeko jarduera kasuetan.

Ezaugarriak :

- .- Ikasketa edo lanarekin zer ikusirik ez duen ikastaroa.
- .- Denbora libre edo aisialdirako denboran egiten den ikastaroa.
- .- Herrian burutzen direnak.

**Onuradunak:** Herritarrak

**Modalitateak:** Onuradun guztientzako, aisialdirako ikastarotzak hauek hartzen dira:

- .- Eskulana modalitate guztiak.
- .- Yoga, pilates eta antzeko ikastaroak.
- .- Ingelesa.
- .- Euskara.
- .-e.a.

**Ikastaroak eskeintzeko modua:** Ikastaroa herrian bakarrik

**-Laguntzaren helburu nagusiak:**

1.1.Herrian biltzeak, ikastaroaren ikasgai nagusiak ikasteaz gain, elkartu, bildu, beraien arteko giroa sortu eta elkarren arteko lotura indartzea.

## **II.- KAPITULUA.- ELEMENTU PERTSONALAK**

### **2. artikulua: Laguntza ematen duen subjektua.**

Orendaingo Udala da laguntza ekonomiko hau ematen duen entitatea.

### **3. artikulua: Udalaren kompetentzia.**

Orendaingo Udalari dagokio, Hezkuntza, Kultura, Euskara, Kirola eta Gazteria Batzordearen bitartez, ondoko kompetentziak egikaritzea:

- a) Laguntza ekonomikoa kudeatzea.
- b) Laguntzaren zenbatekoa zehaztea.

### **4. artikulua: Hezkuntza, Kultura, Euskara, Kirola eta Gazteria Batzordeko Lehendakariaren funtzioak.**

Prozedura arduradun nagusia denez, Hezkuntza, Kultura, Euskara, Kirola eta Gazteria Batzordeko Lehendakariari dagokio ondoko funtzioen garapena:



- a) Eskerak biltzea eta aztertzea.
- b) Emango den laguntzaren txostena burutzea.
- d) Hezkuntza, Kultura, Euskera, Kirola eta Gazteria Batzordea jakinaren gainean jartzea.

#### **5. artikulua: Onuradunak.**

Prestakuntza osagarriaren laguntza jasotzeko onuradunak honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Orendaingo Udalerrian bizitzea eta laguntza eskaeraren data baino sei hilabete lehenago gutxienez bertan erroldaturik egotea.
- b) Dirusarrera propiorik ez izatea, beraz langabetua edo ikaslea prestakuntza ikastaroko laguntza jasotzeko.
- d) Ikastaroaren %75eko asistentzia eta probetxamendua bet duela frogatu behar da.

Udalerrian bertan antolatzen diren ikastaroak burutzeko, onuradunak honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Orendaingo Udalerrian bizitzea eta laguntza eskaeraren data baino sei hilabete lehenago gutxienez bertan erroldaturik egotea.
- b) Ikastaroa Udalerrian bertan burutzea.
- d) Ikastaroaren %75eko asistentzia eta probetxamendua bet duela frogatu behar da.

### **III.- KAPITULUA.- PROZEDURA**

#### **6. artikulua: Tramitazioa.**

Laguntzak emateko tramitazioa ondoko prozedurari egokituko zaio:

- \* Laguntzaren eskaera, zehaztutako beharkizunen indarrez.
- \* Batzordearen Lehendakariaren txostena.
- \* Batzordearen proposamena.
- \* Eskudun organoaren ebazpena.

#### **7. artikulua: Laguntzaren eskaera.**

Formulatzen diren eskaerak ondokoa barne hartu beharko dute:

- a) Interesatuaren izena eta abizenak eta adin gutxikoa bada, berau ordezkatzeko duen pertsonarenak, bai jakinarazpenen eraginetarako adierazten den lekua identifikazioa ere.
- b) Eskaera gauzatzen deneko kausa, argi eta garbi adieraztea.
- d) Interesatuak sarrera ekonomikorik jasotzen ez dueneko aitortzen zinegina.
- f) Lekua, data eta eskatzailearen sinadura.

Erregelamendu honen I eranskin gisa eskaera ereduaz azaltzen da.



## **8. artikulua: Gaineratu behar den dokumentazioa.**

Eskaerari honako dokumentazio hau gaineratuko zaio:

- .- Eskatzailearen NAN ren fotokopia.
- .- Ikastaro subentzionagarriei dagozkien matrikulen, ordaindutako kuoten edota ordaintzeko dauden zenbatekoen frogapena.
- .- Prestakuntza osagarria edo ikastaroaren asistentzia % 75 ekoa izan denaren egiaztagiria.

## **9. artikulua: Eskaerak aurkezteko epea.**

Eskaerak Udalaren Erregistroan ondoren esaten den bezala:

- 1.-Herriz kanpo egiten diren ikastaroaren kasuan, urriaren 30erako eskaera eta agiriak aurkeztu beharko dira.
- 2.-Udalerrian egindako ikastaroen kasuan, ikastaroa amaitu eta lau hilabete barru eskaera eta agiriak aurkeztu behar dira.

## **10. artikulua: Batzordeko Lehendakariaren txostena.**

Eskaerak erregistratu ondoren, Batzordeko Lehendakariak dagokion txostena jaulkiko du Batzordearentzat.

## **11. artikulua: Batzordearen proposamena.**

Eskatzailearen dokumentazioa jaso eta Lehendakariak txostena jaulki ondoren, Hezkuntza, Kultura, Euskara, Kirola eta Gazteria Batzordeak kasua aztertuko du eta laguntzaren onarpena eta zenbatekoa proposatuko ditu.

## **12. artikulua: Ebazpena.**

Azterketa-proposamenaren erabakiak eskudun organoaren iritzipean jarriko dira, honek eskatzaileari hartutako ebazpena jakinaraziko dioelarik.

## **13. artikulua: Laguntza emakida**

Eskatutako dirulaguntzaren emakida jakinaraztekotan Orendaingo Udalak emandako zenbatekoa adieraziko da.